



Soilik da aurrerabidea  
denok egiten  
badugu aurrera

# 119 urteko *gizarte konpromisoa*

"la Caixa" Kataluniako eta Balearretako Zahartzarorako Pentsioen Aurrezki Kutxa 1904an sortu zuen Francesc Moragas Barret abokatu kataluniarrak, Kataluniako gizarte zibileko hainbat erakunderen laguntzaz.

Sortu zenetik, "la Caixa" Fundazioaren bereizgarriak izan dira **gizarte konpromiso sendoa eta interes orokorraren alde lan egiteko bokazioa**, bai jarduera finantza-rioren bidez bai gizarte ekintzaren bidez,

hainbat jarduera finantzatzeko eta mantentzen dituen gizarte, hezkuntza, kultura eta zientzia alorretan.

Gizarte inbertsioaren bolumenari erreparatuz gero, "la Caixa" Fundazioa munduko garrantzitsuenetako bat da.

Egiturari dagokionez, "la Caixa" Fundazioa **CriteriaCaixa**-ren jabe da, finantza holding bat, bere enpresa ondarea kudeatzeko eginkizuna duena.



Fundación "la Caixa"



## Gizarte programak eta deialdiak

*Gizarte eraldaketa*, pertsona zaugarrien bizi kalitatea hobetzeko eta herritarren arteko bizikidetzak sustatzeko programen bidez.

## Kultura eta zientzia

*Gizartea hobetzea*, kulturaren eta zientziaren bidez, hazkunde pertsonalerako eta gizarte kohesiorako tresna gisa.

## Hezkuntza eta bekak

*Hezkuntzari bultzada* eta bikaintasuneko formakuntza, aurrera egiteko eta gizarte ongizatea bermatzeko.

## Ikerketa eta osasuna

*Ikerketaren sustapena* eta berrikuntza, urratsak egiteko medikuntzan eta biziaren beste zientzia batzuetan.



% 100



CriteríaCaixa

### BANKU ZORROA



### INDUSTRIA ZORROA ETA ZERBITZUEN ZORROA



Beste partaidetza batzuk

HIGIEZINEN ZORROA ETA BESTE FINANTZA AKTIBO BATZUK



## ”la Caixa” Fundazioaren *esentzia*

”la Caixa” Fundazioaren **misioa** da gizarte hobegoa eta bidezkoagoa eraikitzea, eta aukerak ematea premia handienak dituzten pertsonei, hasieratik ardatz izan dituen **konfiantza, bikaintasun** eta **gizarte konpromisoaren** balioetan oinarrituta. Hori guztia gizartearentzat erreferentzia izateko **ikuspegi**az, denboran iraungo duten irtenbideak aurkitzeari begira: kolektibo zaugarrienen oinarritzko beharrei erantzuteko, gizartearen aurrerabidea bultzatzeko eta ikerketaren, bikaintasunezko formakuntzaren eta hezkuntzaren desafio berriei erantzuteko, zientzia eta kultura hurbilduz gizartearen segmentu guztiengana.

## Pertsonen orainarekin eta etorkizunarekin *konprometituta*

”la Caixa” Fundazioak arreta berezia jartzen du inpaktu eraldatzaile handiena duten programetan; hala nola haur pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako programak, enplegua sustatzen dutenak eta pertsona zaugarrienen bizi baldintzak hobetzen laguntzen dutenak.

Gainera, ”la Caixa” Fundazioaren jarduerak beste alor batzuetara ere zabaltzen da: ikerketa medikoa, bikaintasunezko formakuntza, kultura eta hezkuntza... den-denak oinarritzkoak aurrerabidea eta aukera berdintasuna sustatzeko. Gizarte hobego bat eraikitzeke ”la Caixa” Fundazioaren gizarte konpromisoak Espainia eta Portugal ditu jardun eremu nagusiak.



# Gizarte programak eta deialdiak

## Bultzada ematen diogu *eraldaketa sozialari*



### Haur pobrezia

CaixaProinfancia programaren bidez, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden familiei laguntzen diegu 0-18 urteko adingabeen gizarte eta hezkuntza garapenean.

**400 erakunde laguntzaile baino gehiago**

**Laguntza jaso duten adingabeak:**

Programan, 2022an guztira: **62.005**

Euskadin, 2022an: **971**

### Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen arreta integrala

Laguntza psikosoziala eta espirituala ematen diegu bizitzaren amaieran dauden pertsoneri eta haien senideei.

Euskadin: **2 talde 6 ospitaletan**

**Artatutako gaixoak:**

Programan, 2022an guztira: **38.560**

Euskadin, 2022an: **2.111**

**Laguntza jaso duten senideak:**

Programan, 2022an guztira: **44.115**

Euskadin, 2022an: **1.647**

### Gizarte proiektuetarako deialdiak eta laguntzak

Elkarlanean ari gara irabazi asmorik gabeko erakundeekin, egitasmoak bultzatzeko gizarte zaugarritasunean dauden pertsonentzat.

1999an sortutako programa.

**Proiektuak:**

Programan, 2022an guztira: **1.445**

Euskadin, 2022an: **53**

### Laneratzea

Lana lortzen laguntzen diegu zailtasunak dituzten pertsoneri, 500 erakunderen laguntzaz.

**Lan kontratuak:**

Programan, 2022an guztira: **46.158**

Euskadin, 2022an: **1.086**

**Enpresa kolaboratzaileak:**

Programan, 2022an guztira: **15.633**

Euskadin, 2022an: **610**

### Adineko pertsonak

Adineko pertsonen ondoan gaude, hazkunde pertsonalerako haien aukerak ahal bezain handiak izan daitezzen, eta babes harremanak errazten dizkiegu, bakardadea prebenitzeko.

**Parte-hartzaileak:**

Programan, 2022an guztira: **295.235**

Euskadin, 2022an: **12.339**

**Jarduerak:**

Programan, 2022an guztira: **14.269**

Euskadin, 2022an: **357**

### Gizarte Behatokia

Analisi eta gogoetarako gune bat, gizarte ikerketa bultzatu eta oinarri zientifikoko ezagutza zabaltzen duena, Espainian eta Portugalen.

2016an programa abian jarri zenetik:

**163 proiektu lagunduta**

**215 argitalpen (dosierak, artikuluak eta txostenak)**

### Nazioarteko kooperazioa

Aukerak sortzen ditugu eta kolektibo zaugarriari laguntzen diegu, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan, hainbat programaren bidez:

- Enplegua sortzeko programak
- Osasun globalaren eta ikerketaren hobekuntza
- Ekintza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza
- Profesionalen formakuntza
- Laguntzak nazioarteko kooperazio proiektuei, urteko deialdi baten arabera

2022an:

**600.000 onuradun baino gehiago 18 herrialdetan**

## Gizartea hobetzen kulturaren eta zientziaren bidez



### CaixaForum +

Doako *streaming* plataforma, kultura eta zientzia edukietan espezializatua (web, gailu mugikor eta tabletetarako), 1.000 edukirekin baino gehiagorekin abian jartzeko unean..

### Arte garaikideko bilduma

Europako bilduma pribatu garrantzitsuenetakoa, estatuko eta nazioarteko artisten 1.000 obra baino gehiagorekin.

1985etik:

**190 erakusketa**  
**1.042 artelan**  
**431 artista**

### Art for Change

Gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzeari begira, proposamen artistiko onenak hautatu eta sorkuntza prozesuak sustatzen ditugu, bizikidetzeta, ikaskuntzeta eta gogoeta guneak sortuz.

Programan, 2022an guztira:

**36 proiektu aukeratu**  
**3.738 onuradun**

### Erakusketak lurralde osoan

Erakusketak penintsulako, Balear Uharteetako eta Kanarietako hiri eta udalerrietan barrena — Portugal barne—.

Kultura tresna indartsua da pertsona guztien garapen pertsonalerako.

#### Erakusketak:

Programan, 2022an guztira: **76**  
Euskadin, 2022an: **4**

#### Bisitariak:

Programan, 2022an guztira:  
**3,6 milioi pertsona baino gehiago**  
Euskadin, 2022an2: **211.963**

### Musika

Kontzertuak (eskoletan eta parte-hartzaileak) Espainian eta Portugalen, musika hurbiltzeko adin eta gizarte profil guztietako publikoetara, baliabide eta berrikuntza teknologiko onenak erabilita.

#### Kontzertuak:

Programan, 2022an guztira: **485**

#### Entzuleak:

Programan, 2022an guztira:  
**72.332**

# Hezkuntza eta bekak

## Aukerak mundu hobeago baterako



### EduCaixa

Hezkuntza programak, jarduerak eta baliabideak eskaintzen ditugu, haur eta gazteen ikasteko aukerak hobetzeko. Kalitatezko hezkuntza sustatzen dugu, irakasleak babestuz eta ahaldunduz, aldaketa agente eta gizarte eraldaketaren protagonista gisa.

Helburu gakoak:

- Ikasleei gaitasunak garatzen laguntzea.

#### **Ikasle onuradunak / erabiltzaileak:**

Programan, 2022an guztira:

**1.254.125**

Euskadin, 2022an: **16.458**

- Irakasleen garapen profesionala bultzatzea.

#### **Irakasle onuradunak / erabiltzaileak:**

Programan, 2022an guztira: **221.159**

Euskadin, 2022an: **1.314**

- Ebidentziak sortzea eta transferitzea hezkuntza praktiken ebaluazio eta zabalkundetik hasita, nazioarteko erakundeekin eginiko aliantzen bidez.

#### **Eskola parte-hartzaileak:**

Programan, 2022an guztira: **6.202**

Euskadin, 2022an: **181**

### Bekak

Ikerkuntza talentua eta bikintasunezko formakuntza sustatzen ditugu munduko ikergune eta unibertsitate onenetan.

”la Caixa” Fundazioaren Beka Programak 40 urte bete ditu 2022an (1982-2022).

2022an, berreskuratu egin dira bekadunentzako jarduera presentzialak, balio erantsi bat ematen diotenak bekari: besteak beste, orientazio jardunaldiak, bekak entregatzeko ekitaldia eta urteko topaketak.

#### **Emandako bekak:**

Programan, 2022an guztira: **255**

- **Graduko bekak: 50**
- **Graduondoko bekak atzerrian: 100**
- **Doktorego bekak Espainian eta Portugalen: 65**
- **Doktorego ondoko bekak Espainian eta Portugalen: 40**

Euskadin, 2022an: **18**

- **Graduondoko bekak atzerrian: 8**
- **Doktorego bekak Espainian eta Portugalen: 6**
- **Doktorego ondoko bekak Espainian eta Portugalen: 4**

### ProFuturo Fundazioa

Telefonica Fundazioarekin batera, haur eta gazteen hezkuntza sustatzen dugu Latinoamerika, Karibe, Afrika eta Asiako lurralde zaurgarrietan.

Formakuntza eta laguntza ematen dizkiegu irakasleei, eta baliabide digitalak,

hezkuntza arrakala txikitzeko.

2016an programa hasi zenetik, ProFuturo Fundazioak laguntza eman die 27 milioi haurri baino gehiagori, eta 1.300.000 irakasle inguru trebatu ditu.

2022an:

**45 herrialde**  
**7 milioi haur onuradun baino gehiago,**  
**6.976 eskolatan**



## Gaurko ikerketa, biharko osasuna

Ikerketa eta berrikuntza sustatzen ditugu biomedikuntzan eta osasunean, mundu hobeago eta osasuntsuago bat eraikitzeko, ezagutzan oinarrituta.

2022an:

**35,6 M€ inbertsioetan**  
**596 ikertzaile kontratatu**  
**1.099 zientzia artikulu**

### Ikerketa eta osasun erakundeentzako laguntza

Elkarlanean dihardugu ikerguneekin eta ospitaleekin, ezagutza biomediko berria sortu eta gizartera zabaltzeko.

### Ikerketa lankidetzaren estrategikoak:

- Barcelona Beta Brain Research Center - Pasqual Maragall Fundazioa
- IrsiCaixa, Hiesaren Ikerketa Institutua
- ISGlobal, Bartzelonako Osasun Globaleko Institutua
- VHIO, Vall d'Hebron Onkologia Institutua

### Ikerketa proiektuak biomedikuntzan eta osasunean

Gure Osasun Ikerketa Deialdiaren bidez, Espainiako eta Portugalgo deialdi filantropiko garrantzitsuena, bultzada ematen diogu bikaintasuneko eta inpaktu sozialeko ikerketa zientifikoari, proiektu eraldatzaileak bultzatzeko biomedikuntzan eta osasunean.

**Lagundutako proiektuak:**  
Programan, 2022an guztira: **33**

2018an programa sortu zenetik:  
**137 proiektu lagunduta**  
(FCTk diruz lagundutako 17 proiektu)

**93,71 M€**  
(10,3 M€, FCTren eskutik)

**622 artikulu zientifiko**

### Berrikuntza eta gizarterako transferentzia

CaixaImpulse osasun berrikuntzako programaren bidez, puntako laborategi ikerketak sustatzen ditugu, pazienteetara irits daitezzen, bizitzaren eta osasunaren zientzietako produktu, zerbitzu eta enpresa berriak sortuz.

**Lagundutako proiektuak:**  
Programan, 2022an guztira: **17**  
**Euskadin, 2022an: 1**

2015ean programa sortu zenetik:  
**173 proiektu lagunduta**  
**83 patente berri**  
**38 enpresa berri**

### CaixaResearch Institute

"la Caixa" Fundazioak CaixaResearch Institute babesten du, gaixotasunen immunologian espezializatutako zeharkako eta diziplinarteko Espainiako lehen ikerketa zentro handia.

## Enpresa ondarearen *kudeaketa* eredu

”la Caixa” Fundazioak bere enpresa ondarea kudeatzen du **CriteriaCaixa** filialaren bidez, ondare hori babestu eta handitzeko, helburua izanik erakundearen gizarte ekintza finantzatzea eta hainbat egitasmoren iraunkortasuna bermatzea (gizarte egitasmoak, asistentzia alorrekoak, kulturalak, ikerketakoak eta hezkuntza alorrekoak).

CriteriaCaixa-ren lehentasuna da baliabide ekonomikoak jartzea, ”la Caixa” Fundazioaren gizarte ekintzak lanean jarrai dezan urtez urte **premia handienak dituztenei aukera gehiago emango dizkien gizarte** bat garatzeko.

Kudeaketa eredu oinarritzen da gardentasun eta etika printzipioetan, **gizarte konpromisoaren, erantzukizunaren eta konfiantzaren** balioetan oinarritutako prozeduren ardatz direnak, baita ingurune naturalarekiko errespetuan ere.



”la Caixa” Fundazioa,  
munduko *fundazio*  
*handienetakoa*

2023ko aurrekontua

**538 M€**

2023 ko inbertsioen  
banaketa:

Gizarte programak eta  
deialdiak

**320 M€**

Kultura eta zientzia

**112 M€**

Hezkuntza eta beka

**44 M€**

Ikerketa eta osasuna

**62 M€**

